

4. GAZTERIA SAILA	4. ÁREA DE JUVENTUD
4.1. URTEKO PROGRAMAK EGITEKO GAZTE ELKARTEEI ZUZENTZEN ZAIZKIEN DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA.	4.1. CONVOCATORIA PARA LA CONCESIÓN DE SUBVENCIONES DIRIGIDAS A ASOCIACIONES JUVENILES PARA LA REALIZACIÓN DE LOS PROGRAMAS ANUALES
1. Xedea.	1. Objeto.
Deialdi honen xedea hauxe da, Arrasateko udalerrian gazteen elkartegintza sustatzea helburu duten dirulaguntzak arautzea.	El objeto de esta convocatoria es la regulación de los requisitos de concesión de subvenciones destinadas a la promoción del asociacionismo juvenil en el municipio de Arrasate.
2. Onuradunak.	2. Entidades beneficiarias.
Laguntza hauek jaso ditzakete, batetik, gazteria helburu duten herriko elkarteek eta, bestetik, herriko elkarteetako gazte sailek.	Podrán optar a estas ayudas tanto las asociaciones locales cuyo objeto sea la juventud, como los departamentos juveniles de las diferentes asociaciones locales.
Elkarteek edo entitateek Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistroan edo bestelako erregistro publikoetan izena emanda egon beharko dute, eta identifikazio fiskaleko kodea eduki beharko dute.	Las asociaciones o entidades deberán hallarse inscritas en el Registro de Asociaciones de la Comunidad Autónoma u otros registros públicos, y hallarse en posesión del correspondiente código de identificación fiscal.
3. Izapidetzeaz arduratzen den administrazio unitatea.	3. Unidad administrativa encargada de la tramitación.
Gazteriaren administrazio unitateak izapidetuko ditu eskabideak.	Las solicitudes serán tramitadas por la unidad administrativa de Juventud.
4. Aurkeztu behar den dokumentazioa.	4. Documentación a presentar.
Interesa duten entitateek, 2026ko deialdiaren oinarri arau orokorretan eskatutako dokumentazioaz gain, agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:	Las entidades interesadas deberán presentar, además de la documentación solicitada en las bases generales de la convocatoria del 2026, la siguiente documentación:
- Elkartearen helburuak, arduradunen datuak, bazkide kopurua, jarduera nagusiak.	- Objetivos de la asociación, datos de las personas responsables, número de personas asociadas, actividades principales.
- Elkarteak uneko urterako programatutako proiektuen eta jardueren xehetasuna.	- Detalle de los proyectos y actividades programados por la asociación para el año en curso.

<p>- Elkarte berria bada, helburua jasotzen duen aurkezpen idatzia, jardute eremua, helburuak, bazkide kopurua, baliabideak eta abar.</p>	<p>- En el supuesto de nuevas asociaciones, escrito de presentación que recoja su ámbito de actuación, objetivos, número de personas asociadas, recursos, etc.</p>
<p>5. Eskabideak baloratzeko irizpideak.</p>	<p>5. Criterios de valoración de las solicitudes.</p>
<p>Deialdi honetan arautzen diren laguntzak kalkulatzeko, irizpide hauek aplikatuko dira, atal bakoitzeko hemen jasotzen diren puntuazioekin:</p>	<p>Para el cálculo de las ayudas reguladas en la presente convocatoria se aplicarán los siguientes criterios, con la puntuación que a continuación se recoge por cada apartado:</p>
<p>1. Elkartearen proiektzio soziala, beste gizarte eta kultur entitate eta dinamizatzaile batzuekin duen inplikazio maila. Gehienez ere 25 puntu.</p>	<p>1. Proyección social de la asociación, nivel de implicación con otras entidades sociales y culturales. Hasta un máximo de 25 puntos.</p>
<p>2. Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa (diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa, izaera berritzailea eta abar) eta egokitasuna. Gehienez ere 25 puntu.</p>	<p>2. Calidad técnica del proyecto presentado (diseño, metodología, organización de recursos, carácter innovador, etc.) y oportunidad del mismo. Hasta un máximo de 25 puntos.</p>
<p>3. Herrian programak edo jarduerak izan dezaketen eragina eta ekarpena gazteria, kultura eta gizarte arloetan. Gehienez ere 25 puntu.</p>	<p>3. Incidencia y aportación del programa o actividades a nivel local en las áreas de juventud, cultura y sociedad. Hasta un máximo de 25 puntos.</p>
<p>4. Antolaketa arloan nahiz autofinantzaketan elkarreak egindako ahalegina. Gehienez ere 15 puntu.</p>	<p>4. Esfuerzo realizado por la asociación tanto a nivel de organización como de autofinanciación. Hasta un máximo de 15 puntos.</p>
<p>5. Euskara sustatzearen aldeko jarrera. Gehienez ere 10 puntu.</p>	<p>5. Promoción del euskara. Hasta un máximo de 10 puntos.</p>
<p>Horietaz gain, honako alderdi hauek lehenetsi eta positiboki baloratuko dira:</p>	<p>Además de estos, se dará preferencia y se valorarán positivamente los siguientes aspectos:</p>
<p>Berdintasunaren irizpidea kontuan hartzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuz eta sustatuz, eta, bereziki, emakumeen eskubideak bermatuz.</p>	<p>Considerar el criterio de igualdad, impulsando y promoviendo la igualdad entre hombres y mujeres y, especialmente, garantizando los derechos de las mujeres.</p>
<p>Belaunaldien arteko ibilbidea eta transmisioa bermatzea eta elkartearen biziraupena ziurtatzea, bereziki beren lana herrian zabaltzen eta hedatzen dutenena (sozializazioa, jende berriaren inplikazioa...).</p>	<p>Garantizar la trayectoria y transmisión intergeneracional y asegurar la continuidad de la asociación, especialmente la de aquellas que desarrollan su trabajo en el municipio (socialización, implicación de nuevas personas...).</p>

<p>Edozelan ere, programa honetan jasotako dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, aurkeztutako proiektuek gutxienez 50 puntu lortu beharko dituzte.</p>	<p>En todo caso, las propuestas deberán obtener un mínimo de 50 puntos para poder conseguir las subvenciones recogidas en el presente programa.</p>
<p>6. Aurrekontua.</p>	<p>6. Presupuesto.</p>
<p>Programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 17.000 € da, eta "1.0410.481.337.20.00 Gazte elkarteei zuzendutako dirulaguntzak" kontu sailaren kontura finantzatuko da.</p>	<p>El importe de las ayudas convocadas a través del presente programa asciende a la cantidad de 17.000 €, y será financiado con cargo a la partida presupuestaria "1.0410.481.337.20.00 Subvenciones destinadas a asociaciones juveniles".</p>
<p>Ezarritako diru kopurua agortutakoan bukatutzat emango da programa, udalak propio erabaki ezean kreditua handitzea.</p>	<p>El programa se dará por concluido cuando su consignación presupuestaria se agote, a no ser que el Ayuntamiento expresamente decida aumentar dicho crédito.</p>
<p>7. Klausula gehigarria.</p>	<p>7. Cláusula adicional.</p>
<p>Deialdi honetan jasotzen ez diren gai guztietan Arrasateko udalaren dirulaguntzak ematea eta kudeatzea arautzen duen ordenantzan ezarritakoa izango da aplikagarria, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak garatu duen erregelamendu eta bat datozen gainerako lege arauetan ezarritakoa.</p>	<p>En todo lo no recogido expresamente en esta convocatoria, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de concesión y gestión de subvenciones del ayuntamiento de Arrasate, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, que aprueba el Reglamento de la Ley General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes.</p>